



Nabarnizko Udala

BASO EKOIZKINAK ATERATZEKO UDAL TITULARTASUNEN NEKAZAL BIDEEN ERABILERARAKO ORDENANTZA ARAUEMAILEA

1. artikulua.- Funtsa eta izaera

Honako Ordenantza hau, Udal Batzordeen Zerbitzuen Arautegia artikulatzen duen 1955 ko ekainaren 17 ko dekretuaren 1 eta hurrengo artikuluan, Udal Batzordeen Ondarea arautzen duen ekainaren 13 ko 1.372/1986 Erret Dekretuaren 77 artikuluan eta Udal Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2 ko 1985/7 Legearen 22 eta 25 artikuluetan onarturiko ahalmenak erabiliz idazten da eta honen bitartez, Nabarnizko Udalaren jabegoko bideen erabilera edo utsiapen berezia arautzen du, hauen narriadura ekiditeko eta udal ondareak zaintzeko asmoz.

2. artikulua.- Helburua

Honako Ordenantza honen helburua, Udal titulartasuneko nekazal bideen erabilera arautzea da, motordun ibilgailuak natur inguruetan aritzea erregulatzeko, naturaren baloreak zaintzen direla bermatzeko, baso bideak erabiltzerakoan jabego publiko eta pribatua errespetatzeko baldintzak ezartzeko, eta batez ere egurra eta apeak garraiatzeko.

3. artikulua.- Baso bideen erabilera

Udal titulartasuneko baso bideen erabilera, ondoren zehazten den eran arautuko da:

1. Mendiak erabiltzen dituzten pertsonak baso-bideetatik ibiltzeko eskubidea dute, ongi pasatzeko, kirola egiteko, ehizarako, arrantzarako, baso fruitu eta landareak biltzeko eta abarrerako, beti ere, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz. Baina araubide zehtzik ez duten jardueretarako, ohizko jarduteak errespetatu behar izango dira.

2. Mendi-ibiliek ohizko bide eta bidexketatik egingo dira, basoa berritzeko itxiturak errespetatuz eta basoko fauna eta landarediaren artatzean eta hedatzean oztoporik jarri gabe.

3. Baso-lanak edo eraikitze bestelako jarduerak egiteko baso-bideetatik motordun ibilgailuekin ibili behar denean, Udal Ordenantzek onartutako Baldintza Teknikoen Pleguetan ezartzen diren betekizun zehatzak jarraituko dira. Erabilera horrek laguntza programei heltzen dien baso-bide partikularra ukitzen duenean, aplikagarriak diren legeetan xedatutakoak eta berorren jabe eta erabiltzaileek onartutako arauak eraenduko dute.

4. Lehenengo puntuan azaldutako irizpideen arabera araututako naturguneetara sartzen diren motordun ibilgailuek, ibilgailua eta gidaria identifikatzeari buruzko legeak betetzeaz gain, erabileren gaineko ondoko arau eta mugak jarraitu beharko dituzte:

4.1. Ibiltzea baimentzen da 3,5 m baino gehiagoko bide guztietan, baldin eta zoru motaren bateko zoladura badute eta beren beregi debekatuta ez badute bertatik ibiltzea.

4.2. Zura ateratzeko baso-bideetan, suebaketan, ganaduaren bideetan, mandiko ibilbideetan, erreken ibilgaitan eta zelaietan debekatuta dago motordun ibilgailuekin ibiltzea. Salbuespen dira zaintzarako erabiltzen direnak eta suteak itzaltzeko zerbitzuaren ibilgailu ofizialak; aterabideen kasuan, salbuespen dira baso-produktuak ateratzeko ibilgailuak eta baso zerbitzuarenak.

4.3. Baimendutako bideetatik, gehienez, orduko 25 km-tako abiadurarekin ibil daiteke. Hori egiaztatzeko, ibilgailuaren aurrera-egitea neurtuko da, ibilgailu ofizialekin erkatuz. Abiaduraren egiaztapenak dagozkion zigorrak justifikatzeko balio izango du.

4.4. Nekazaritza Sailak, halaber, muga jakin batzuk edota aldi baterako mugak ezarri ahal izango ditu interesekoak diren naturguneak babesteko, suteak arriskuak kontrolatzeko eta zoruko kalteak saihesteko.

4.5. Finka pribatuen barruan erabat sartuta dauden bideetan ibiltzeko debekuak eta mugak finka horien titularrek ezarriko dituzte, aplikagarriak diren legeekin bat etorriz.

4.6. Aipatutako bideetan ezin izango da ibili 30 toneladatik gorako karga duen kamioirik. Udalaren eskumena da, baso bide bakoitzerako gehienezko karga zein den ezartzea.



Nabarnizko Udala

4.7. Bide eta gune publikoetan ezin izango da ezein kasutan materialen zamaketa lanik egin, baldin eta Udalak baimena espreski ematen ez badu, interesdunak baimena eskatutan. Udal titulartasuneko baso bideetan egindako lege hauste administratiboak, Udal Ordenantzen Legean ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

4. artikulua.- Udal bideen aprobetxamenduak

Konstituzioaren 133.2 eta 142 artikuluek eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106 artikulua emandako eskumenak erabilita, Toki Ogasunak arautzen dituzten abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 15 eta 19 artikuluekin eta ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 15 eta 18 artikuluekin bat etorriz, Udal honek bere bideak aprobetxatu eta erabiltzeagatik tasa ezartzen du. Tasa hori, gainera, zerga-ordenantza honen arabera eraenduko da, aipatu 39/1988 Legearen 58 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

5. artikulua.- Egitate ezargarria eta oinarri ezargarria

Tasaren zerga egitatea da: udal titulartasuneko (ez pribatu edo partikularrak) auzo bideak, asfaltatutakoak, zementatutakoak eta baso bideen aprobetxamendu berezia, baso-produktuak ustiatzeko edo udalaren bideetan kalteren bat eragin dezakeen beste edozein jardueratarako.

Oinarri ezargarria, egur ustiatzeetatik atera daitekeen egurraren bolumena izango da, metro kubiko (m³) errealetan neurtuta.

6. artikulua.- Ordaintzera derrigortuak

Egurra ateratzeko Udal baso bideak erabiltzearen, tasa ordaindu behar da, eta bermea ezarri, bideak eta baso-bide horiek erabiltzean sortu litezkeen kalteak ordaintzeko. Tasa eta berme hori jartzea-ren erantzule, egurraren jabea eta salmen-taren bultzatzailea dira, eta sorospenez maderista, baso aprobetxamenduen kasuan; gainontzeko erabileretan, garriolaria izango da erantzule.

Kontrakorik ezartzen duen hitzarmenik ez balego, kanonaren ordainketa jabearen kontura izango da, eta bermearena eroslearen edo garraiolariaren kontura.

Dena dela, bai jabeak zein erosleak eta garraiolaria izango dute sorospenez, bermea jarri eta kanona ordaintzeko erantzunkizuna.

7. artikulua.- Eskakizunak

Udal nekazal bideren bat erabili behar dutenek, egurra ateratzen hasi baino lehenago Udalari baimena eskatu behar diote, eskarian honako datu hauek adieraziz.

- a) Egurraren jabe, egurtzaile, akulari eta garraiolariaren izena.
- b) Mendiaren izen eta kokapena.
- c) Ibilgailuek egin beharreko bidea.
- d) Ateratze eta garraioaren hasiera eta amaiera data.
- e) metro kubikoak.
- f) Garraioa egingo duen ibilgailu-mota, matrikula, bidai kopurua eta zama kopurua bidai bakoitzeko.
- g) Egur edota beste materialik pilatuko duen ala ez eta horrela balitz, egur mota, pilaketa lekua eta bolumena.

Eskariari derrigorrez lotu behar zaio Nekazaritza Foru Sailak emandako mozte baimena, bertan atera behar den baso ekoizkinaren bolumena adierazi behar delarik, metro kubiko errealetan neurtua, eta baita mozte mota ere (matarrasa ala entresaka)

8. artikulua.- Kuota



Nabarnizko Udala

Aplikatu beharreko tasa ondoko taulan jasotakoa izango da:

Pinu matarrasa: 1,16 euro/m³

Eukalipto matarrasa: 0,40 euro/m³

Entresaka: 0,35 euro/m³

9. artikulua.- Bermea

Balizko kalteen aurrean erantzuteko babes modura, derrigorrezkoa izango da aurretiaz berme bat jartzea, bere zenbatekoa, epealdi arruntarako, eranskinean ezarritakoa izango delarik. Baso bideak neguko epealdian zehar erabili ahal izateko, esijitu beharko den bermearen zenbatekoa eranskinean ezartzen denari %10 gehituko zaio.

Bermea dirutan, zigilatutako taloiz edo banketxearen abalez ordaindu ahal izango da. Behin bidearen egoera zein den aztertu eta Udalak bere onespena eman ondoren, interesdunak bermea itzul dakion eskatuko du eta itzuli egingo zaio.

10. artikulua.- Salbuespenak

Udal baso bideetatik ibili behar duten auzokideek ez dute kanonik ez bermerik jarri behar izango, beti ere egur garraioa baserriaren beharrezko edo abeltzantzarako denean.

Era berean, eta arestian aipatutakoaren arabera, ateratako egurraren bolumena 35 estereo edo 15 m³-tara heltzen ez denean, ez da bermerik ez kanonik jarri behar izango.

11. artikulua.- Erantzunkizunak

Bideen erabileraren onuradunak arduratuko dira bideak eta berauen instalazio publikoak baimena eman aurretiko egoeran mantentzeaz. Erantzukizun hau Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera eskatuko zaie, baina Justizia Auzitegietara jotzea baztertu gabe.

Horretarako, aurretiaz eta interesdunak hala eskatuta, baso bideen egoera gainbegiratuko da. Bidean kalteak ikusiko balira, gai den Udal zein Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariak egindako txosten teknikoaren arabera balioztatu ondoren, eta konponketa lanak burutzeko jarritako bermea nahikoa ez balitz, egurraren erosleari edo sorospidez garraiolariari konponketa lanak osatu arteko diru kopurua eskatuko zaio.

Udal bide berbera batek baino gehiagok aldi berean erabili eta kalteak agertuko balira, kalteen erantzunkizuna erabiltzaile guztien artean proportzionalki banatuko litzateke.

Fidantza itzultzeko prozedura ebazteko, gehienez, hiru hilabete izango ditu Administrazioak, bermea itzultzeko eskaria egiten den egunetik zenbatzen hasita, eta bidearen egoera ikuskatu ondoren.

12. artikulua.- Mugatutako erabilera

Garraiolariak eguraldi txarra egiten duen aldietan zirkulatzea ekidingo du eta bidea behar bezalako segurtasun-baldintzetan mantentzeko hartu beharreko neurriak hartuko ditu.

Bidea erabiliko den aldia aintzat hartuz, bermearen zenbatekoa kalkulatzeko, honako haiek desberdinduko dira:

– Ohiko epealdia: apirila, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua eta iraila.

– Neguko epealdia: urria, azaroa, abendua, urtarrila, otsaila eta martxoa.

Baso bidea erabiltzeko aurrikusitako epealdia aldi bietako hilabeteetan zehar izanez gero, neguko epealdi modura hartuko da bere osotasunean.

Ezin izango da udal bidea garraio astunez erabili dagokion lizentzia eman baino lehenago, ezta bermea ezarrita egon baino lehenago ere, nahiz eta eskaera aurkeztuta izan.

13. artikulua.- Zigorrak

Urratze eta doakien zigorrek ezartzekotan, Udal Erregimen Legeak ezarritakoaren arabera ihardungo du.



Nabarnizko Udala

Zigorak ezartzeak ez du inola ere esan nahi kanona eta bermea ez direla ordaindu edota kobratuko.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere aldarapenak 2019ko abenduaren 26an onartu ziren behin betikoz, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean bere testu osoa argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta aldatzea edo indargabetzea erabakiko ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA

BERMEAK

m ³	Bermea (€)	Estereoak	Bermea (€)
15 arte	salbuetsita	35 arte	salbuetsita
16-49	201,00	36-99	201,00
50-99	379,89	100-199	379,89
100-199	872,34	200-299	572,85
200-299	1.371,83	300-399	872,34
300-399	1.719,21	400-499	1.150,73
400-499	2.115,53	500-599	1.371,83
500-599	2.683,35	600-699	1.719,21
600-699	3.065,25	700-799	1.917,54
700-799	3.829,05	800-999	2.291,40
800-899	4.411,95	1.000-1.199	2.683,35
900-999	5.045,10	1.200-1.299	3.065,25
1.000-1.199	5.763,68	1.300-1.399	3.261,23
1.200-1.399	6.502,35	1.400-1.599	3.447,15
1.400-1.599	7.256,10	1.600-1.799	3.829,05
1.600-1.799	8.019,90	1.800-1.999	4.411,95
1.800-1.999	9.155,55	2.000-2.199	5.045,10
2.000 edo gehiago	10.723,35	2.200-2.499	5.763,68
		2.500 edo gehiago	7.718,40

Oharra: Ordenantza hau aplikatuko zaie baita ere, Ereño, Ipazter, Gizaburuaga, Aulesti, Mendata, Arratzu eta Kortezubiko mendietatik piñua atera eta Nabarnizko baso bideak erabiltzen dituztenei.